**Azalpen txostena, Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruz.**

Diputatu Nagusiaren 4/2023, ekainaren 30ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak berriro finkatzekoak, 10. artikuluan, honako jardun esparru eta eginkizun hauek esleitzen dizkio departamentuari: garraioak, bizikletaren eta bizikleta-bideen erabilera sustatzea eta horien titulartasuna eskualdatzea, Jasangarritasun, Turismo, Lurralde Antolamendu eta Kohesio Sailarekin lankidetzan; hirigintza-plangintza sustatzea eta gainbegiratzea; lurraldearen sustapena eta lurzoruaren kudeaketa; erabilera administratibo propioa duten Foru Aldundiaren eraikinak eraikitzea eta birgaitzea; enpresa-ondarea eta lurralde-informazioa ez den ondare higiezinaren politika eta kudeaketa teknikoa definitzea.

Bestalde, 12/2023 Foru Dekretuak, uztailaren 4koak, 6. artikuluan, departamentua hiru zuzendaritza nagusietan antolatzen du: Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia, Turismoko Zuzendaritza Nagusia eta Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.

Alde batetik azpimarratu behar da Diputatu Nagusiaren uztailaren 4ko 12/2023 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren oinarrizko departamentuen egitura ezartzen duenak, departamentuaren eskumenak zabaltzea ekarri duela, Turismoko Zuzendaritza Nagusiaren etorrerarekin.

Bestalde, uztailaren 14ko 6/2023 Foru Dekretuak ekainaren 30eko 4/2023 Foru Dekretuaren 6. Artikulua aldatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoa aldatzen duenak. Horrenbestez, Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak bizikleta-bideen azpiegituren arloan zuen eskumena (Gipuzkoako Foru Bizikleta Bideen Sarearen plangintza eta garapena eta Katalogoaren eguneratzea; inbertsioen programazioa eta bizikleta bideen obra guztien finantzazioa; errepideak eraikitzeko proiektuetan sartuta ez dauden bizikleta bideen

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

El artículo 10 del Decreto Foral del Diputado General 4/2023, de 30 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones, atribuye al departamento las siguientes áreas de actuación y funciones: transportes, promoción del uso de la bicicleta y de las vías ciclistas y traspasos de titularidad de las mismas en colaboración con el Departamento de Sostenibilidad, turismo, ordenación y cohesión territorial, fomento y supervisión del planeamiento urbanístico, promoción del Territorio y gestión del suelo, construcción y rehabilitación de los edificios de la Diputación Foral de uso administrativo propio, la definición de la política y gestión técnica del patrimonio inmobiliario  distinto del patrimonio empresarial e información territorial.

Por su parte, el artículo 6 del Decreto Foral 12/2023, de 4 de julio, estructura el departamento en tres direcciones generales: la Dirección General de Movilidad y Transporte Público, la Dirección General de Turismo y la Dirección General de Ordenación del Territorio.

Hay que destacar, por un lado, que el Decreto Foral del Diputado General 12/2023, de 4 de julio, por el que se establece la estructura departamental básica de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha traído la ampliación de las competencias del departamento con la llegada de la Dirección General de Turismo.

Por otro lado, la aprobación del Decreto Foral 6/2023, de 14 de julio ha modifica el artículo 6 del Decreto Foral del Diputado General 4/2023, de 30 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones, correspondiendo la competencia que anteriormente ostentaba el Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio en materia de infraestructuras de vías ciclistas (planificación y desarrollo de la Red de Vías Ciclistas Forales y actualización del Catálogo; programación de las inversiones y financiación de todas las obras de vías ciclistas; construcción

azpiegiturak eraikitzea; ohiz kanpoko artatze-lanak; foru bizikleta bideen mugaketa eta mugarriak jartzea) Jasangarritasun Departamentuari dagokio.

de las infraestructuras de vías ciclistas no integradas en proyectos de construcción de carreteras; conservación extraordinaria; deslinde y amojonamiento de las vías ciclistas forales) al Departamento de Sostenibilidad.

**MUGIKORTASUNEKO ETA GARRAIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA.**

**DIRECCIÓN GENERAL DE MOVILIDAD Y TRANSPORTE PÚBLICO.**

Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren lan arloan, bi oinarrizko lan lerro izango ditu 2024. urtean: garraioa antolatzea eta sustatzea (100. aurrekontu programa) eta Donostialdeko metroaren finantzaketa (110. aurrekontu programa).

En el ámbito de la Dirección General de Movilidad y Transporte Público, dos son las líneas básicas de actuación a desarrollar en 2024: la ordenación y promoción del transporte (programa presupuestario 100) y la financiación del Metro de Donostialdea (programa presupuestario 110).

100 PROGRAMA. GARRAIOAREN ANTOLAMENDUA

PROGRAMA 100. ORDENACIÓN DEL TRANSPORTE

2024ko ekitaldian programa hau mantentzen da, ikuspuntu kuantitatibotik, departamentuaren oinarrizko ardatzetako bat bezala.

Este programa se mantiene en el ejercicio 2024, desde el punto de vista cuantitativo, como uno de los ejes básicos del departamento.

Igoerarik handiena 2024ko aurrekontuan hainbat ondorio sartu direlako gertatu da: KPIaren igoera eta prezioen igoerarekin lotutako kostuak, oro har, Ukrainako gerrak sortutako krisi ekonomikoaren ondorioz, eta funtsezko zerbitzu batean, garraio publikoan, bake soziala bermatzeko beharraren ondorioz.

El mayor incremento se produce por la incorporación al presupuesto 2024 de varios efectos: incremento del IPC e incremento de costes asociados al aumento de precios, en general, como efecto de la crisis económica generada por la guerra de Ucrania y la necesidad de garantizar la paz social en un servicio esencial como es el transporte público.

2024ko aurrekontu ekitaldian programa honen kontura landuko diren jarduera ildo eta ekintza guztien artean, nabarmendu behar da garraiobide mota ezberdinen mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta bereziki, bidaiarien garraio publikoaren erabilera sustatzea, intermodalitaterako aukerak indartuz, denbora errealean informazioa hobetuz eta Mugi sistema garatzen jarraituz.

Entre las líneas de actuación y actividades que se desarrollarán en el ejercicio presupuestario de 2024 con cargo a este programa presupuestario cabe destacar, entre todas, promover la movilidad sostenible de los diferentes modos de transporte y, en particular, fomentar el uso del transporte público de personas viajeras, potenciando las posibilidades de intermodalidad, mejorando la información en tiempo real y continuando con el desarrollo del sistema Mugi.

Horretarako, II. Kapituluan daude, besteak beste hiru hiriburuetako autobus geltokiei erabileragatik ordaindu beharreko kanonei aurre egiteko, kamioiak pisatzeko baskulen ohiko gastuetarako eta Gipuzkoako mugikortasun iraunkorreko plana garatzeko kontu-sailak.

Para ello, se incluyen en el capítulo II, entre otras, las partidas destinadas a hacer frente a los cánones por el uso de las estaciones de autobuses de las tres capitales, a los gastos habituales de las básculas de pesaje de camiones y al desarrollo del Plan de movilidad sostenible de Gipuzkoa.

IV. Kapituluan jasotzen dira, besteak beste, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eta Ortzibia, S.L. enpresaren ohiko funtzionamendu gastuei aurre egiteko; Hondarribia-Donostia Aireportua sustatzeko;

El Capítulo IV contiene, entre otras, las partidas destinadas a hacer frente a los gastos ordinarios de funcionamiento de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa y de la empresa Ortzibia, S.L.; a la promoción del Aeropuerto de

Udal-garapeneko mugikortasun iraunkorreko planak diruz-laguntzeko; eta, bereziki, Gipuzkoako errepideko herriarteko bidaiarien erabilera orokorreko garraio publiko erregularreko zerbitzua finantzatzeko. Zenbatekoagatik eta herritarrengan duten eragin zuzenagatik, azken horiek dira garrantzitsuenak, eta horien zenbatekoa 2024an handitu da 2023ko aurrekontuarekin alderatuta, besteak beste, bidaiari kopurua handitu delako eta zerbitzuak eskaeraren beharretara egokitu direlako.

Hondarribia-Donostia; y en especial, a la financiación de la prestación del servicio de transporte público interurbano regular de uso general de personas viajeras por carretera de Gipuzkoa. Por su cuantía y su incidencia directa en la ciudadanía, estas últimas son las más importantes, y su importe se incrementa en 2024 respecto al presupuesto de 2023, entre otros, por el aumento del número de personas viajeras y la adaptación de los servicios a las necesidades de la demanda.

VI. Kapituluak, batez ere, Lurraldebusen sistema berrien inbertsiorako kontu-saila jasotzen du. Inbertsio honek ahalbidetuko ditu, besteak beste, Lurraldebusen erabiltzaileentzako informazioa denbora errealean hobetzea; Mugi Birtuala, Bat eta Barik Lurraldebusen erabilgarri izatea; eta aurre-salmenta hobetzea eta ibilbide ertain/luzeko gainerako lineetara zabaltzea.

El capítulo VI recoge, principalmente, la partida destinada a la inversión de los nuevos sistemas de Lurraldebus. Esta inversión permitirá, entre otras, mejorar la información en tiempo real para las personas usuarias de Lurraldebus; la adaptación de Lurraldebus a Mugi Virtual, Bat y Barik; y, la mejora de la venta anticipada y su extensión a las demás líneas de medio/largo recorrido.

VII. Kapituluak egokitutako auto-taxiak erosteko diru-laguntza lerroa jasotzen du.

El Capítulo VII recoge la línea de ayudas para la adquisición de auto-taxis adaptados.

<u>110 PROGRAMA. DONOSTIALDEKO METROA</u>

<u>PROGRAMA 110. METRO DE DONOSTIALDEA</u>

Aurrekontu-programa honek Donostialdeko metroa Gipuzkoako ekialdeko korridorearen trenbide-konexio gisa garatzen du, eta proiektuaren baterako finantzaketan eta kudeaketan parte hartzen du; bai eta Loiolako Erriberako trukagailuaren eraikuntza sustatzen ere, hori guztia Eusko Jaurlaritzarekin batera.

Este programa presupuestario desarrolla el Metro de Donostialdea como conexión ferroviaria del corredor Este de Gipuzkoa, participando en la cofinanciación y gestión del proyecto, así como impulsar la construcción del intercambiador de Riberas de Loiola, todo ello junto al Gobierno Vasco.

VII. kapituluari dagokionez, Loiolako erriberen trukagailuari dagozkion proiektu-lanen partida bat gehitu da.

En lo relativo al Capítulo VII, se incorpora una partida de los trabajos de proyecto correspondientes al intercambiador de riberas de Loiola.

**<u>LURRALDE ANTOLAKETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA</u>**

**<u>DIRECCIÓN GENERAL DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO</u>**

Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren lan arloan, aurrekontu proiektuak Pasaialdeako badia berreskuratzeko inbertsioak gauzatzea aurreikusten du.

En el ámbito de la Dirección General de Ordenación del Territorio, el proyecto de presupuestos contempla la ejecución de inversiones regeneradoras en la bahía de Pasaialdea y en otras áreas deterioradas.

Departamentuak garatzen jarraituko dituen lan alor hauek guztiak hartzen dituena: hirigintzaren eremuko lana; lurralde antolaketarako mekanismo lehen ezarritakoak nahiz berriak

Asimismo, al Departamento le corresponde continuar las labores que se han venido desarrollando en los campos del urbanismo, de la promoción y utilización de los mecanismos,

sustatzeko eta erabiltzeko lana; eta Gipuzkoako datu espazialen azpiegitura prestatu eta Aldundi osoaren eta, oro har, gipuzkoar gizartearen esku jartzeko lana.

establecidos o nuevos, de ordenación territorial, de elaboración y de la puesta a disposición de la Diputación en conjunto, y de la sociedad guipuzcoana en general, de una infraestructura de datos espaciales de Gipuzkoa.

Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren beste ardatza da lurzoruaren eta ondarearen antolatzea.

Otro eje de la Dirección General de Ordenación del Territorio es el de la ordenación del suelo y patrimonio.

Era berean Foru Jauregiaren eta departamentuen gainerako eraikinen mantentze, kontserbatze eta zaharberritze arkitektonikorako egon daitezkeen beharrak kudeatuko dira.

Asimismo, se atenderán a las necesidades de mantenimiento, conservación y rehabilitación arquitectónica del Palacio Foral de la Diputación y otros inmuebles del patrimonio de la Diputación Foral.

<u>300. PROGRAMA. PASAIALDEAKO ANTOLAKETA ETA SUSTAPENA</u>

<u>PROGRAMA 300. ORDENACIÓN Y PROMOCIÓN DE PASAIALDEA</u>

Programa horrek zuzkidura aurreikusten ditu 2024rako, Pasaiako Badiaren ekonomia, hirigintza, gizartea eta kultura biziberritzeko lanean jarraitzeko, eta jarduera hori "Adinberri" erreferentzia-zentroa eraikitzera bideratuko da.

Este programa contempla para el ejercicio 2024 dotaciones para continuar trabajando en pos de la regeneración económica, urbanística, social y cultural de la Bahía de Pasaia, centrando esta actuación en la construcción del Centro de referencia “Adinberri”.

<u>310 PROGRAMA. PLANGINTZA ETA LURZORUAREN ETA ONDAREAREN KUDEAKETA</u>

<u>PROGRAMA 310. PLANIFICACIÓN Y GESTIÓN DEL SUELO Y PATRIMONIO</u>

310. programaren kargura, Aldundiaren ondare publiko eta pribatua osatzen diren ondasunen eta eskubideen administrazioa eta eskaera berrien kudeaketa (salerosketak, desjabetzeak, etab) egiten da.

Con cargo al programa 310 se lleva a cabo la administración de los bienes y derechos que integran el patrimonio privado y público de la Diputación y se gestionan sus nuevos requerimientos (compras, expropiaciones, etc).

Halaber, programaren bidez kudeatuko dira lurzorua eskuratzeko behar diren desjabetze espedienteak, Foru Aldundiko departamentuek eta BIDEGI foru sozietate publikoak gauzatu beharreko azpiegiturak eraikitzeari ekiteko.

Asimismo, desde este Programa se gestionarán los expedientes expropiatorios necesarios en orden a la adquisición de suelo para acometer la construcción de las infraestructuras a ejecutar tanto por los distintos departamentos de la Diputación Foral, como por la Sociedad Pública foral BIDEGI.

<u>320 PROGRAMA. LURRALDEAREN ANTOLAKETA</u>

<u>PROGRAMA 320. ORDENACIÓN DEL TERRITORIO</u>

Programa honi dagokio, alde batetik, aztertzea eta ebaztea hirigintzako espedienteak; eta beste aldetik, Gipuzkoako datu espazialen azpiegitura prestatzea eta Aldundi osoaren eta, oro har, gipuzkoar gizartearen esku jartzeko lana.

A este programa le corresponde, por un lado, analizar y resolver, los diversos expedientes urbanísticos; y por otro, la puesta a disposición de la Diputación en conjunto, y de la sociedad guipuzcoana en general, de una infraestructura de datos espaciales de Gipuzkoa.

VI. kapituluari dagokionez, Gipuzkoako datu espazialen azpiegituran inbertitzen jarraitzen dugu.

En lo relativo al Capítulo VI, se mantiene el esfuerzo inversor en el desarrollo de la citada infraestructura de datos espaciales de Gipuzkoa.

VII. kapituluari dagokionez, aurreikusten da jarduketak egitea hiri antolamenduko udal tresnak lurraldearen errealitate berrira eta gaur egungo ordenamendu juridikora egokitzea sustatzeko. Hiri-berroneratzea eta hirigintza inklusiboa eta berdintasunezkoa azpimarratuz.

Con respecto al Capítulo VII se prevén actuaciones de fomento de la adecuación de los instrumentos municipales de planeamiento a la nueva realidad del territorio y al ordenamiento jurídico actual, haciendo hincapié en el urbanismo inclusivo e igualitario.

<u>330 PROGRAMA. ARKITEKTURA</u>

Azkenik, 330. programaren barruan Departamentuak laguntza eta aholkularitza teknikoa emango die foru departamentuei arkitekturaren arloan.

Programa honetan nabarmendu behar da foru-eraikinetako obrei buruzko partida handitu egin dela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren higiezinean, Oñatiko Unibertsitatean eta Infernuko eremuan, Donostian, egindako jarduketengatik.

<u>PROGRAMA 330. ARQUITECTURA</u>

Finalmente, en el marco del programa 330 el departamento continuará prestando la asistencia y la asesoría técnica a los departamentos forales en materia de arquitectura.

Cabe destacar en este programa el incremento en la partida relativa a las obras en edificios forales debido a las actuaciones en el inmueble de la Diputación foral de Gipuzkoa, en la Universidad de Oñati y en el ámbito del Infierno, en Donostia-San Sebastián.

**<u>TURISMOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA</u>**

Turismo Zuzendaritzaren 2024ko aurrekontuaren eta 2023koaren arteko aldeak honako hauek dira:

Aurrekontu-partida hauek sortzea:

Gipuzkoako Pintxoaren Institutua, pintxoa sustatzeko eta dinamizatzeko.

Gipuzkoako Sagardogile Elkartea, sagardotegien turismoa sustatzeko.

Basque Challengue, turistentzako zikloturista probak antolatzeko.

Eduardo Chillida eta Pilar Belzunce Fundazioa, Eduardo Chillidaren mendeurrenaren turismoa sustatzeko.

**<u>DIRECCIÓN GENERAL DE TURISMO.</u>**

Las diferencias del presupuesto de la dirección de Turismo del año 2024 respecto al 2023 son las siguientes:

Creación de las siguientes partidas presupuestarías:

Instituto del pintxo de Gipuzkoa para la promoción y dinamización del pintxo.

Gipuzkoako Sagardogile Elkartea para la promoción turística de las Sidrerías.

Basque Challengue para la organización de pruebas cicloturistas para turistas.

Fundación Eduardo Chillida y Pilar belzunce para la promoción turística del Centenario de Eduardo Chillida.

06 Departamentua MUGIKORTASUNEKO, TURISMOKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA/

Departamento 06 DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD, TURISMO Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak / Programas | LANGILEAREN GASTUAK 1 GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2 GTOS.CTES. BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK 3 GASTOS FINANCIEROS | TRANSFER. ARRUNTAK 4 TRANSFER. CORRIENTES | KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5 CONTINGENC. IMPREVISTOS | INBERTSIO ERREALAK 6 INVERSIONES REALES | KAPITAL TRANSFER. 7 TRANSFER. DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK 8 ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK 9 PASIVOS FINANCIEROS | AURREKONTUA GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01. Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolake Servicios Generales de Movilidad, Turismo y Orden | 1.143,30 | 934,11 | | | | 441,14 | | | | 2.518,55 |
| 10. Garraioaren Antolamendua/ Ordenación del Transporte | 1.466,87 | 4.002,41 | | 56.690,14 | | 2.113,14 | 71,00 | | | 64.343,56 |
| 11. Donostialdeako Metroa/ Metro de Donostialdea | | | | | | | 173,32 | | | 173,32 |
| 20. Turismo eta lurralde irudia/ Turismo e imagen territorial | 320,74 | 1.689,85 | | 1.886,54 | | 10,00 | | | | 3.907,12 |
| 30. Pasaialdeko Antolaketa eta Sustapena/ Ordenación y Promoción de Pasaialdea | 219,72 | 200,00 | | 499,00 | | 7.732,99 | 1.450,00 | | | 10.101,72 |
| 31. Lurraren Kudeaketa eta Ondarea/ Gestión de Suelo y Patrimonio | 822,89 | 965,00 | | | | 635,00 | | | | 2.422,89 |
| 32. Lurraldearen Antolaketa/ Ordenación del Territorio | 901,35 | 360,00 | | 80,00 | | 525,00 | 400,00 | | | 2.266,35 |
| 33. Arkitektura/ Arquitectura | 1.041,91 | 1.028,00 | | | | 2.030,00 | | | | 4.099,91 |
| **Departamentua Guztira Total Departamento** | **5.916,79** | **9.179,37** | | **59.155,68** | | **13.487,26** | **2.094,32** | | | **89.833,42** |

